



UDAL ORDENANTZA

Debako Udalean eta udalerrian euskararen erabilera normalizatzeko arauak ematen dituen.

SARRERA.-

Euskal herriko hiritar guztiek dute bi hizkuntza ofizialak ezagutu ezezik erabiltzeko eskubidea, nola hitzez hala idatziz. Ondorioz Debako Udalak, honako hizkuntza eskubideak aitortzen dizkie espresuki hiritarrei:

- a) Udalarekin eta bere menpeko Organismo ororekin ahozko eta/edo idatzizko harremana euskaraz edo gaztelaniaz izateko eskubidea.
- b) Udalak antolatu edo/eta gestionaturiko ikasketak oro bi hizkuntza ofizialetan egiteko eskubidea.
- c) Udalaren argitalpenak eta Udalak egunkari, aldizkari, irrati eta beste edozein komunikabidetan jakitera ematen dituen berri eta xedapenak oro euskaraz hartzeko eskubidea.
- d) Udaleko edozein bileretan euskaraz jarduteko eskubidea.

LEHEN KAPITULUA: Euskararen erabilera Udalaren barne funtzionamenduan

1. artikulua.-

Hiritarrek Udalarekin beraiek aukeratutako hizkuntza ofizialean jardun dezaketenez eta kontuan hartuz gaztelania hiritar guztiek ezagutzen dutela, Udalarekin harremana euskara hutsean eduki nahi duten hiritarren zentsua egingo du Udalak. Zentsu horretan sar daitezten izena ematen dutenei euskara hutsean zuzenduko zaie Debako Udala.

2. artikulua.-

1. artikuluan aitortutako eskubideak benetakoak eta eraginkorrak izan daitezen beharrezko diren neurriak hartuko ditu Udalak. Hortaz hiritarren zerbitzurako hizkuntza ezezik, laneko hizkuntza ere izango da euskara Debako Udalean, Ordenantza honetan xedatutakoaren arabera.

3. artikulua.-

Aurreko artikuluetan jasotakoa betetzeko xedez, udal enpleguak euskalduntzeko neurri egokiak hartuko ditu Debako Udalak. Era berean, etorkizunean kontratatzen dituen enplegatuak beren jarduna euskaraz nahiz gaztelaniaz burutzeko gai izan beharko dute. Horretarako guztirako, azaroaren 25eko 250/1986 Dekretuaren ildotik, Udaleko eta Udalaren menpeko organismoetako lanpostu guztien hizkuntza eskakizunak definitu eta onartuko ditu, lanpostuetan jardun ahal izateko ezinbesteko baldintza gisa lanpostuen zerrendetan jasoko direnak.

Hizkuntza eskakizunak lanpostu bakoitzaren funtzio eta zereginen arabera definituko dira, hots, plaza bakoitzaren izaeran (Udal barruko nahiz kanpoko harreman-sarea, menpeko pertsonala, zerbitzuaren izaera, lanpostuaren maila profesionala, eginkizun zehatzak) oinarrituz erabakiko dira lanpostuen ahozko nahiz idatzizko hizkuntza trebetasunak.

Azaroaren 25eko 250/1986 Dekretuko 3.3. artikuluaen arabera, Hizkuntza Politikarako Idazkaritzari dagokio aipatu hizkuntza eskakizunak definitzea. Hortaz, hizkuntza eskakizunak, behin aipatu Idazkaritzak definitu ondoren, Debako udalbatzak onartu eta Ordenantza honi eranskin gisa gehituko zaizkio.

4. artikulua.-

Azaroaren 25eko 250/1986 Dekretuko 12. artikuluan xedaturiko bost helburu mailakatueteriko laugarrena hartzen du beretzat Debako Udalak, gizarte-izaera eta izaera orokorra duten Zerbitzu eta Unitate Administratibo guztiek oso-osorik elebietan burutuko dute beren jarduna. Gainontzeko zerbitzuetan, hau da, kale garbitzaileen eta obretako lantaldearen zerbitzuetan zirkuito elebidunak bermatuko dira, kasu batean nahiz bestean arduradunek elebidun izan beharko dutelarik.

5. artikulua.-

Aipatu dekretuko laugarren helburua bost urtean lor dadin plangintza egokia prestatu eta hezuramaituko du Debako Udalak, plangintza horretan zehaztuko direlarik enplegatu guztiek eta bakoitzari dagokion hizkuntza eskakizunera egokitzeko prozesuan bete beharko dituzten epeak, Udalak jarriko dituen bitartekoak, lehentasunak eta beste.

Bitartekoak era askotarikoak izango dira: denbora oso edo partzialeko ikastaroak, ikasturte bat edota gehiagoko ikastaroak hala nola ikastaro trinkoak,

barnetegiak, lanorduetan edo lanorduz kanpo burutu beharrekoak, lan giroko prestakuntza, e.a.

Euskara Batzordeak kontrolatu eta ebaluatuko ditu ikastaroen emaitzak. Enplegatu bakoitzarentzat egoki den bitartekoa enplegatuarekin adostasunean aplikatuko da.

Edozein kasutan, ondoko ordena honi jarraiki ezarriko dira euskalduntze prozesu horretako lehentasunak:

- Udal zerbitzuei dagokionez: Kultura, Hezkuntza (Musika Eskola, Lanbide Hastapenerako Eskola, Haurtzaindegia), Gizarte Ongizatea eta Zerbitzuak (Asistentzia Soziala, Kontsumitzaile Bulegoa, atezainak,...) Hirigintza, Udaltzaingoa eta Barne Zerbitzuak.
- Lanpostuei dagokionez: idazkari-kontuhartzailea, batzorde informatibo eta departamenduetako idazkariak, zerbitzuburuak eta arduradunak.

Nolanahi ere, aipatu plangintza hezurmamitzeari ekitearekin batera, herritarrekiko harreman zuzenekoak duten zerbitzu guztietan ahozko komunikazio elebiduna bermatzeko neurri egokiak hartuko dira.

Enplegatuak dagokion hizkuntza eskakizunera egokitzeko programaren aplikazioan, lantalde edo departamentu bereko enplegatuen artean euskalduntze eta alfabetatze prozesuan aurreratuen daudenak lehenetsiko dira, interesatuek espresuki alderantzizkoa adierazi ezean.

6. artikulua.-

Ordenantza honetako 6. artikuluaaren arabera, euskara, Debako Udalean, zerbitzurako hizkuntza ezezik, laneko hizkuntza ere izango denez, dagokien hizkuntza eskakizuna jadanik betetzen duten enplegatuek euskaraz burutuko dute beren lana, eta gainontzekoek, elebiduntze plangintzaren barruan euskalduntzen doazen heinean, bere lana pixkanaka-pixkanaka euskaraz burutzeari ekingo diote, dagokien hizkuntza eskakizuna eskuratzean erabat euskaraz jardungo direlarik.

Udala izango da indarrean dagoen legediak herritarrei aitortzen dizkien eskubideen bermetan gaztelaniaz ere eman behar dena gazteleratuko duena.

7. artikulua.-

Beren udal jarduna euskaraz burutzeko gai diren eta hala burutzen duten enplegatuen esku jarriko ditu Udalak beharrezko diren lexiko, hiztegi, terminologi zerrenda, aldizkari eta liburu espezializatu eta gainerako dokumentu, inprimaki eta ereduak. Era berean, Euskara Arduradunaren aholkularitzaz ere baliatu ahal izango dira enplegatuak.

8. artikulua.-

Debako Udaleko lanpostuez funtzionario nahiz lan-erregimenpean jabetu ahal izateko derrigorrezkoa izango da lanpostuari dagokion hizkuntza eskakizuna egiaztatzea. Beraz, probak gainditzen dituztenen artean lanpostuaren hizkuntza eskakizuna ere betetzen duen lehen izangaia jabetuko da lanpostuaz. Probak gainditutakoen artean lanpostuaren hizkuntza eskakizuna betetzen duen izangairik ez balego bi aukera hauetariko bat egin beharko luke Udalak: plaza hutsik utzi, berriro deialdia egitekotan, edo probetan lehen postua atera duenari behin-behineko kontratua egin, kasu honetan Udalak kontratatuari arrazoizko epe bat jarriko liokeelarik bere hizkuntza eskakizuna eskura dezan, horretarako beharrezko dituen baliabideak eskainiz. Behin epe hori bukatu ondoren, behin-behinekoz kontraturiko enplegatuak dagokion hizkuntza eskakizunaren jabe dela egiaztatu beharko du Udalaren aurrean. Frogatzen baldin badu behin-betiko izaera hartuko du bere kontratuak, baina frogatzen ez badu, lan-kontratua hautsi egingo da, lanpostu hori barne-sustapenera atera edo deialdi publikora jarri ahal izango delarik.

9. artikulua.-

Udaletxera sartzen diren nahiz Udaletxetik ateratzen diren dokumentuak idatzita dauden hizkuntza ofizialean inskribatuko dira Udal Erregistroan, Azaroan 24ko 10/1982 oinarrizko legeko 7. artikuluan xedatuaren arabera.

Bi hizkuntza ofizialetan idatzita daudenak euskaraz inskribatuko dira.

10. artikulua.-

Udalaren bandoak, araudiak, ordenantzak eta ebazpenak oro bi hizkuntza ofizialetan argitaratuko dira, euskarari lehentasuna emanez.

11. artikulua.-

Euskara ere, gaztelania bezala, hizkuntza ofiziala denez, euskaraz idatzitako erabaki, jakinarazpen, xedapen, ziurtagiri eta gainerako agiri guztiek balio ofiziala dute.

12. artikulua.-

Indarrean dagoen araudiaren arabera mezua derrigor bi hizkuntza ofizialetan eman behar den kasuetan euskarazkoa lehenetsiko da.

13. artikulua.-

Udaleko organo informatiboetan eta Gobernu Batzordearen bilkuretako akten testu originalak bileratan erabili den hizkuntza ofizialean idatziko dira. Edozein kasutan, euskaraz idatzitako proposamen edo diktamenei buruzko erabakiak, bileratan gaztelaniaz eztabaidatuak izan badira ere, euskaraz jasoko dira aktetan. Hau guztia 10. artikuluan xedatuaren kalterik gabe.

Batzarraldi plenarioetako aktak euskaraz jasoko dira, nahiz eta bertan izandako interbentzioei buruzko erreferentziak egin izan diren hizkuntzan jaso.

14.- artikulua.-

Udaleko organo guztiek dute -informatiboek nahiz exekutiboek- beren ohizko lan-hizkuntzat euskara aukeratzeko eskubidea. Erabaki hori hartzen duten organoen bilerak sistematikoki euskaraz egingo dira, eta euskaraz ez dakiten partaideentzat aldibereko itzulpen zerbitzua emango da. Era berean, organo horien aktak, gutunak, jakinarazpenak eta agiriak oro euskaraz idatziko dira, beharrezko den kasuetan gaztelera itzultzearen kalterik gabe.

15. artikulua.-

Udaleko organo informatiboen eta exekutiboen bilkuretarako deialdi guztiak euskaraz idatziko dira, gaztelaniazkoa itzulpena eskatzen duten partaideei bakarrik igorriko zaielarik.

16. artikulua.-

Komunikabideetan argitaratzen diren iragarkiak bi hizkuntza ofizialetan emango dira ezagutzera, euskarazko mezua lehenetsiko delarik. Era berean, komunikabideetara bidaltzen diren ohar eta informazioak ere euskaraz eta gaztelaniaz igorriko dira, eta informazio horien berri bi hizkuntzetan eman dezaten eskatuko zaie komunikabideei.

Hori guztia, 18.5 artikuluan xedatuaren kalterik gabe.

17. artikulua.-

Udalak eta bere menpeko organismoek erabiltzen dituzten inprimaki guztiak euskaraz eta gaztelaniaz idatzita inprimatuko dira, bi hizkuntza ofizialetariko bat edozeinetan betetzeko moduan. Euskaraz bakarrik idatzitako inprimakiak ere jarriko ditu Udalak euskara hutsean bete daitezzen nahi duten hiritarren esku.

18. artikulua.-

Ondoren aipatzen diren kasuetan euskara bakarrik erabiliko da:

1. Ordenantza honetako 1. artikuluan aipatu zentsuan inskribatutakoei bidaltzen zaizkien gutun, agiri eta jakinarazpenetan, eta zentsu horretan daudenen eskariz irekitzen diren espedienteetan.
2. Azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legea, euskararen erabilera normalizatzea, betetzea dagokien Administrazio Publikoei igortzen zaizkien idatzietan.
3. Euskara hizkuntza ofiziala duten Organismoei bidaltzen zaizkien idatzietan.
4. Errotulu, seinale, zigilu eta antzekoetan euskaraz eta gaztelaniaz oso antzeko grafia duten hitzak idazterakoan.

5. Mezua piktogramez baliatuz adierazi litekeenean.
6. Ezagutzera ematen den ekintzaren izaerak eta destinatarien berezitasunek eskatzen dutenean.

19. artikulua.-

Idazmakinak, ordenagailua, berauen inprimagailu eta programak, eta Debako Udalak erabiltzeko eskuratutako materiala euskaraz funtzionatzeko egokitua izan dadin saiaturiko da Udala.

20. artikulua.-

Debako Udalak sinatzen dituen kontratuak euskaraz idatziak izango dira, kontratuan esku hartzen duen beste alderdiak hala eskatuko balu, euskaraz eta gaztelaniaz idatziak izango liratekeelarik.

21. artikulua.-

7.artikuluaren xedatuarekin bat etorriz, euskaraz dakiten udal enplegatuak, normalki, euskaraz zuzenduko zaizkie herritarrei beren ahozko harremanetan, gaztelaniaz jardungo direlarik baldin eta hauek aukera hori egiten badute.

22. artikulua.-

Debako Udaleko kargu politikoek, oso bereziki euskaraz jarduteko eragozpenik ez dutenek, normalki euskaraz hitz egingo dute udalaren ekintza publikoetan bere kargua dela-eta parte hartzen dutenean. Bi hizkuntza ofizialetan hitz egiten badute, lehenik euskaraz arituko dira.

23. artikulua.-

Udaletxeko eta Udalaren menpeko organismoen egoitzetako errotulazioa euskaraz egingo da.

BIGARREN KAPITULUA: Euskararen erabilera Debako udalerrian bultzatu eta normalizatzeaz.

24. artikulua.-

Hiru dira euskararen erabilera Debako udalerrian normalizatzeari dagokionez Udalak beregain hartzen dituen helburu nagusiak: euskaraz dakiten herritarren kopurua pixkanaka-pixkanaka gehitzea, gaurko euskararen erabilpena ziurtatzea eta nahiz euskaraz dakitenek nahiz ikasten ari direnek erabil dezaten bultzada iraunkorra ematea.

Hori horrela delarik, euskaraz dakiteneen hizkuntza ohiturak aldatzearen aldeko saioak burutuko ditu Udalak, modu iraunkorrean, nola bere ekimenez, hala bere gaineratik dauden erakundeen eta herritarren arteko bitartekotza eginez.

Era berean, eta erabilpena ziurtatu eta bultzatu eta gaurko erabilpen-esparruak handitzeko xedez, ahalegin berezia egingo du euskaraz hitz egiten dakitenak alfabetatzea.

25. artikulua.-

1. Deba udalerriko kale, bide, auzo, auzune, mendi, ibai eta erreken izendegi ofiziala eta, oro har, toponimoak, Debako Udalak finkatuko ditu bere eskumen-esparruan; hori bai, beti ere, euskal, erromantze edo gaztelania jatorria errespetatuz eta hizkuntza bakoitzaren grafia akademiko propioa erabiliz. Hori horrela delarik, Deba udalerriko toponimoen bilketa eta jadanik bildutakoen berrikuspina egingo du Udalak, eginkizun horren ardura dagokion erakundearen zuzendaritzapean eta Euskaltzaindiaren irizpideen arabera.
2. Herri bideetako trafiko seinale eta iragarpenak oro bi hizkuntza ofizialetan idatzita egongo dira. Nolanahi ere, euskarazko testua lehenetsiko da, nazioarteko arauak errespetatu eta ulergarritasuna bermatzearen kalterik gabe.
3. Ulergarritasuna piktograma bidez bermatu ahal litekeen kasuetan, euskarazko testua bakarrik izango dute iragarpenek.

26. artikulua.-

Debako garraio publikoetako inprimaki, abisu eta adierazpenak oro euskaraz eta gaztelaniaz egin daitezten eta mezuaren ulergarritasuna bermatu ahal litekeenean euskara hutsean egin dadin neurri eraginkorrak hartuko ditu Udalak. Era berean, abiapuntua Deban ez eduki arren udalerrri honetan geralekua duten garraio publikoetako arduradunei ere gauza bera egin dezaten eskatuko zaie.

27. artikulua.-

Euskara gizarte-esparru guztietan eta publizitatean erabili dadin eta, oro har, gizarte bizitzan euskararen presentzia gehi dadin neurri egokiak hartzea dagokie botere publikoei.

Hortaz, Debako Udalak, aipatu xedearen harian eta bere jarduera eremuan, honako neurriok hartu eta betearaziko ditu:

1. Kultur, kirol eta aisi elkarteei subentzioak ematerakoan hizkuntzaren irizpidea ere kontuan hartuko da. Ondorioaz, Debako Udalarengandik diru laguntzaren bat jasotzen duten elkarte eta entitateek pertsona fisikoek nahiz entitate juridikoek, beren jardun subentzionatueta argitaratzen dituzten idatzi, iragarki, ohar eta gainerakoak euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz idatzi eta ezagutzera eman beharko dituzte, propaganda ere, bai ahozkoa bai idatzizkoa, euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz egin beharko dutelarik. Era berean, ospakizun konkretuetan bozgorailu bidez ematen dituzten mezuak ere euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz eman beharko dituzte.

Euskaraz eta gaztelaniaz egiten diren adierazpenetan, eta batez ere ahozkoetan, euskarazkoari eman beharko zaio lehentasuna, euskarazko adierazpenez jabetu litezkeenak elebidunak baitira.

Subentzioak eskuratzeko baldintzatariko bat izango da hori guztia subentzio hartzaileek subentzioa jasoko badute, derrigorrez bete beharko dutelarik.

2. Udal instalazioak eta materialak erabili ahal izateko ere aurreko puntuan aipaturiko baldintzak bete beharko dira. Udalak, beraz, pilotalekua, hesiak, oholtzak eta zernahi udal instalazio eta material erabiltzeko baimena ematerakoan, hizkuntza baldintza horren berri emango die interesatuei, eta fidantza itzuli baino lehen egin ohi diren egiaztapenatariko bat izango da hizkuntzari buruzkoa ere.
3. Herriko festetako barraketako idatzi, iragarki eta txartelak euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz emango dira ezagutzera, eta, beraz, barrakak muntatzeko baimena emateko baldintzen artean hori ere azalduko da eta hala jakinaraziko zaie barrakariei, fidantza itzuli aurretik baldintza hori bete den ala ez egiaztatu beharko delarik.
4. Publizitatearen gaineko udal zergaren kobrantzarako Ordenantza Fiskala aplikatzen zaien errotuluei dagokionez, honako irizpideon arabera emango dizkie diru laguntzak Udalak izaera ofizialekoak ez diren merkatal eta zernahi motatako entitateei:

4.a. Euskara hutsean idatzitako errotulua jartzen duenari, errotuluaren zenbatekoaren %40a ordainduko zaio, 15.000 pezetako mugapean.

4.b. Errotulu elebiduna jartzen duenari, errotuluaren zenbatekoaren %15a ordainduko zaio, 7.000 pezetako mugapean.

4.c. Irizpide hauek publizitatearen gaineko udal zergaren kobrantzarako Ordenantza Fiskala aplikatzen zaien errotuluaren kasuan bakarrik erabiltzekoak direnez, errotulueta izena, deitura edo izen-deiturak besterik agertzen ez denean ez da 4.a. eta 4.b. puntuetan xedatutako diru laguntzarik emango.

4.d. Establezimendua irekitzeko baimenaren jakinarazpenarekin batera, artikulu honetan xedatutako diru laguntzen berri emango zaie interesatuei, baita

beren errotuluak euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz jar ditzaten gomendioa egin ere.

5. Artikulu honetako lau puntuetan xedatua betetzeko, dohain eskainiko ditu Udalak itzulpen eta aholkularitza, eta horrela jakinaraziko zaie interesatuei.

28. artikulua.-

Deban ematen den irakaskuntza ez unibertsitarioan, uztailaren 11ko 138/1983 Dekretuan xedatutako hizkuntza eredueta euskaldunenak gero eta gehiago heda daitezzen saio bereziak egingo ditu Udalak, batez ere matrikulazio epeak irekitzean.

Era berean, eskola mundua eta eskola-umeen arteko giroa euskalduntzeko jarduera osagarriak ere bultzatuko ditu Udalak.

Hori guztia, gurasoen eta haurren aukera erabat errespetatuz eta ikastetxeekin elkarlanean burutuko da.

29. artikulua.-

Hizkuntza normalizazioaren esparruan Udal honen xede nagusietarikoa Deban euskaraz hitz egiten dakitenen kopurua gehitzea eta hitz egiteko gai direnak alfabetatzea denez, eta kontuan hartuz eskoletatik ez direla denak euskara behar bezala menderaturik irteten, eta halaber, kontuan hartuz erantzukizun publikoa dela euskalduntzearena, helduen euskalduntze eta alfabetatzerako eskaintza publikoa egingo du Udal honek.

30. artikulua.-

Euskaraz dakitenak euskaraz bizi daitezzen, gizarte bititza euskalduntzeko saio bereziak egingo ditu Udalak, bai sektore ezberdinak euskalduntzeko prozesuak bultzatuz, bai haur, gazte eta helduentzako kultur eta aisi ospakizun euskarazkoak antolatuz.

Era berean, euskarazko kreaioa indartu eta euskaraz idatzi eta irakurtzeko zaletasuna bultzatzeko xedez, bidezko irizten dituen zenbait ekintza burutuko ditu Udalak.

HIRUGARREN KAPITULUA: Udalaren hizkuntza normalizaziorako azpiegitura.

31. artikulua.-

Ordenantza honen aplikazio eta bere garapenerako etorkizunean har daitezzen neurrien zuzendaritza eta jarraipenaz Udaleko Euskara Batzordea arduratuko da.

Udaleko Euskara Batzordeari eta gainontzeko organo politikoei dagokie, bera, Udalaren hizkuntza normalizaziorako erabakiak proposatu, eztabaidatu

eta hartzea, Euskara Arduradunaren zeregina delarik erabaki eta programa horiek hezurmamitu eta beroien zuzendaritzaz arduratzea.

Era berean, Debako udalerrian euskararen normalizazio lanetan diharduten koordinaziorako organo bat eratuko da.

Organo hori, sektore ezberdinetan euskara normalizatzeko lanetan dihardutenean eztabaidarako elkargune izango dena, Udalaren hizkuntz normalizaziorako jardunaren ardatzak finkatu eta berrikusteko irizpideak emateaz arduratuko da.

Ordenantza honen aplikazio eta garapenean eta hizkuntza normalizaziorako jardun orokorrean hizkuntza politikaren eskumena duten erakundeekin elkarlanean arituko da Udala.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa.- Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiak Udaleko lanpostuen hizkuntza eskakizunak 3. artikuluan ezarritakoaren arabera -Ordenantza honi eranskin gisa gehituko zaizkionak-erabakitzean, hizkuntza eskakizun horiek afektaturiko artikulua berrikusi egingo ditu Udalak, hizkuntza eskakizunen aplikaziorako plana egin eta onartzearekin batera.

Bigarrena.- Debako Udalak sortu eta/edo bultzatzen dituen programa guztietan hizkuntza normalizaziozko ikuspegia kontuan hartu beharko da, eta Udaleko Euskara Batzordea izango da, beti ere Ordenantza honen hizkuntza normalizaziorako ikuspegiaren presentzia berma dadin informatuko duena, Udaleko Zerbitzu eta Departamendu guztiek txosten eman dezan eskaera egin beharko dutelarik aipatu zerbitzuari. Hori guztia, erabakia dagokion udal organoak hartzearen kalterik gabe.

Hirugarrena.- Udalak onartutako gainontzeko Ordenantza eta xedapenek, Ordenantza honetan jasotako xedapenak bereganatu egin beharko dituzte, beraiei dagokien guztian.

Laugarrena.- Udalak, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Ordenantza honen emaitzen azterketa eta Ordenantzaren beraren berrikuspen orokorra egingo du indarrean sartu eta bost urtetara euskararen normalizazioari buruzko legeria edo arautegi orokorraren nahiz egoera soziolinguistikoaren aldaketaren ondorioaz edota bestelako edozein arrazoiengatik lehenago berrikustea egoki ez baderitzo.

XEDAPEN DEROGATZAILEA

Ordenantza honen aplikazio eta garapenerako beharrezko diren xedapen eta programa berezi eta xehetuak erabaki eta bultzatuko dituzte Udaleko organo exekutiboek.

Deban, 1989ko azaroaren 24an.